



EUSKO JAURLARITZAREN LAGUNTZAK, 2024ko LEHENENGO SEIHILEKOAN BILTZARRAK ANTOLATZEKO

Eskaera aurkezteko epea 2024ko ekainaren 17ra arte 13:30etan

Helburua

2024ko **bigarren seihilekoan** Euskal Autonomia Erkidegoan ikerketa zientifiko presentzialaren esparruko biltzarrak eta bilkurak antolatzeko laguntzaren deialdia egitea. Kongresu eta bilerak **2024ko uztailaren 1etik abenduaren 31era** bitartean egin beharko dira.

Eskaerak aurkeztea:

Aplikazioaren bidez telematikoki eskuratu ahal izango den formularioaren bidez bete beharko dira: [ESTEKA](#)

Eskaera bete ondoren, **sinatuta bidali behar duzu UPV/EHUren adierazpena igz.ikerketalaguntzak@ehu.eus** helbidera. Eskaera egiaztatu eta adierazpen hori jaso ondoren, UPV/EHUko legezko ordezkariak sinadura elektronikoa emango du. **Sinadura hori gabe eskaera ez da erregistratuta geratuko.**

Laguntzen gehienezko zenbatekoak:

		Aurrez aurrekoa	Birtuala
Kongresua	Nazioartekoa	20.000 €	10.000 €
	Estatukoa	10.000 €	5.000 €
Bilera zientifikoa	Nazioartekoa	7.500 €	3.750 €
	Estatukoa	4.000 €	2.000 €

Baztertutako ekintzak:

Batez ere prestakuntzarako diren ikastaro eta jarduerak; hala nola, prestakuntza jardunaldiak, tailerrak eta irakaskuntzarako zein ikaskuntzarako gaikuntza mintegiak, doktorego programei, masterrei eta/edo graduondokoei loturiko bilkurak, baita etengabeko prestakuntzako jarduerak, atak zabaltzeko jardunaldiak eta zuzenean ikerketa zientifikoaren esparruari lotuta ez dauden jardunbide egokiak partekatuzeko jardunaldiak ere.

Diruz lagun daitezkeen jarduerak:

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak.	Kongresua		Bilera zientifikoa	
	Aburres aurrekoa	Birtuala	Aurrez aurrekoa	Birtuala
Ekitaldia antolatzea	x	x	x	x
Jardueraren zabalkundea eta argitalpena	x	x	x	x
Hizlarien bidaiak, ostatua eta mantenua	x		x	
Hizlarien haborokinak	x	x	x	x
Ikertzaile gazteen inskripzio-kuotetako hobariak	x	x	x	x
Ikertzaile gazteen bidaia eta ostatua	x		x	
Sariak	x	x		

Eskaerarekin batera honako agiri hauek aurkeztu behar dira:



1. Jardueraren memoria zientifikoa, honako hauek jasoko dituen:

- Ekimenaren garrantzia.
- Behin-behineko edo behin betiko egitaraua, egutegia eta hizlariak, eta jardueraren berri ematen duen web orriaren esteka.
- Batzorde antolatzailea, batzorde zientifikoa eta hautaketa batzordea nortzuek osatzen duten, halakorik baldin badago.

2. **Justifikazio-memoria ekonomikoa:** kontzeptua, unitateak, tokiak, kostuak edota aurrekontuak zehaztu behar dira. Era berean, taula bat erantsi beharko dute, non jasoko baita zer gastu eta diru-sarrera zenbatesten diren, hala xehe-xehe nola osotara. Gastu horiek bat etorri beharko dute aplikazioan egindako eskabidean jasotakoekin.

3. **Deialdia egiten duen eta/edo ekimena antolatzen duen erakundearen saileko kontseiluaren edo gorengo mailako batzordearen akta,** ekimenaren deialdia egiteko edo hura antolatzeko onarpena, konpromisoa eta erantzukizuna berariaz jasotzen duena.

4. **Gonbidatutako parte hartzaileek parte hartzea onartu dutelako egiaztagiria.** Aplikazioan, **eskuragarri** dago agiri horren **txantilo** bat. Hizlari bakoitzeko agiri bat bete behar da, hizlari bakoitzaren sinadurarekin.

5. **Laguntza honen eskabideko epea amaitzean, eskatu edo eskuratu diren laguntzak egiaztatzea.**

6. **Erantzukizunpeko adierazpena.**

Helburu bererako lortu den edo lortu ahal den subentzio, laguntza, diru sarrera edo bestelako baliabide justifikatu behar da, eskaera egiteko inprimakiaren C atalean adierazi bezala.

- Subentzioen kasuan, emandakoa bada ebazpena agertu beharko da, emandako zenbatekoa bertan dela eta eskatu edo ebazteko diren subentzioen kasuan, kasuan kasuko deialdira aurkeztutako eskaria agertu beharko da.
- Bestelako diru sarreraren kasuan, eragilearen gutun sinatua agertu beharko da, kongresuaren finantzetan laguntzeko konpromisoa eta emango duen zenbatekoa erakutsiz.

Aurekontua egiteko argibideak:

OHAR GARRANTZITSUA:

Aurrekontuak ez du karratua egon behar.

Horrela, **DIRU-SARREREN** atala honela bete beharko litzateke:

- Inskripzioak
- Emandako diru-laguntzak
- Dagoeneko itxita dauden babesletzak **BESTE DIRU-SARRERA BATZUK** atalean.
- Inskripzioen aurreikuspena

ESKATUTAKO diru-laguntzak ez dira agertu behar eskaeran diru-sarrera gisa, ezta eskatzen diren gastuen justifikazioan ere

Laguntza honek emandako zenbatekoaren **hirukoitza** den zenbateko bat justifikatzeko betebeharra dakar (**Eusko Jaurlaritzak biltzarrean zehar deialdian baimendutako kontzeptuetan eginiko gastuaren herena soilik ordaintzen du**). **2/3** kofinantzatzeko, ezingo da Eusko Jaurlaritzako ikertaldearen dirua erabili.

Beraz, emakidaren ondoren, kreditua erreserbatuta geldituko da. Unibertsitatearen aurrekontuetan beste finantziazio iturri batzuk erabilgarri badaudela egiaztatu ahala, pixkanaka Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzari dagokion zenbatekoa ordaintzen joango da.



Erakundearen datuak:

Erakundearen (UPV/EHU) datu hauek behar dira eskaera betetzeko:

- **IFK:** Q4818001B
- **Helbide soziala:** Sarriena auzoa, zk.g.
- **Posta kodea:** 48940
- **Herria:** Leioa (Bizkaia)
- **Legezko ordezkaria:** Inmaculada Arostegui Madariaga
- **Kargua:** Ikerketaren arloko errektoreordea

Formularioan honako hau adierazi behar duzu:

Organo kudeatzaileari ematen diola zerga-eginbeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, uztailaren 21eko 887/2006 errege dekretuak 18. eta 19. artikuluetan xedatutakoaren arabera, bete izana egiaztatzeko baimena. **BAI**

Berdintasun-plan bat indarrean dauka, estatu-araudiaren arabera halakorik izatera behartuta badago. **BAI**

Estatu-legeriak emakumeen eta gizonen berdintasun esparruan finkatzen duen moduan sexu-jazarpenera edo sexuan oinarritutako jazarpenera prebenitzeko eta horri aurre egiteko neurriak ezarri ditu, 50 langiletik gora izanez gero. **BAI**

Harremanetarako datuak:

UPV/EHU:

Tfno.: 94 601 8008

Helbide elektronikoa:

igz.ikerketalaguntzak@ehu.eus

Eusko Jaurlaritza:

Leire Gisasola Atxabal

Tfno.: 945 01 55 24

E-mail: leire.gisasola@euskadi.eus